

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gizarte Eskubideen Sailak 80.000 euroko diru-laguntza estra emango du, familia ugari eta kontziliaziorako

Kopuru berria urte hasierako bi deialditan baimendutako 325.000 euroko diru-laguntzari gehitu diote

Osteguna, 2018.eko abenduak 13

Gizarte Eskubideen Sailak 80.000 eurotan areagotu ditu familia ugarientzako eta behar espezifikoekin adingabeak dituzten familia-unitateentzako diru-laguntzak, bizi pertsonala, familiarra eta laborala kontziliatzeko aukera izan dezaten.

Diru-laguntza honela banatuko da: [50.000 euro](#) familia ugarientzat, ohiz kanpoko eta nahitaezko gastuak ordaintzen laguntzeko, hala nola erosketak eta entzumen- protesien ordezteak, agindu optikoak, ortopedia- eta ortodontzia-tratamenduak. Eta [30.000 euro](#) kontziliaziorako, alegia, pertsona heldu bakar batek bere kargura haurrak dituenen eta haiek zaintzeaz arduratu behar duenean. Diru-laguntza horiek gastu-motaren eta familia-errentaren arabera ezarriko dira.

Kopuru berria urte hasierako bi deialditan baimendutako 325.000 euroko diru-laguntzari gehitu diote, honela banatu zena: [200.000 euro](#) familia ugarientzat eta [125.000 euro](#) (2017an baino % 25 gehiago), behar espezifikoekin adingabeak dituzten familiartekoentzat, kontziliatzeko aukera izan zezaten.

2017an, 876 familia ugari izan ziren onuradunak, eta 131 diru-laguntza bideratu ziren behar espezifikoekin adingabeak dituzten familia-unitateentzat, kontziliazioa errazte aldera.